



# Zer ari zara doing?

Hartu blog bat, telefono mugikor bat eta bat-bateko mezularitza programa bat (*instant messenger* delakoa) eta sartu pote batean. Irabiatu ondo eta ea zer zapore duen. Sarean ere errezeta sinpleenek ematen dituzte emaitza onenak. Twitterren ([www.twitter.com](http://www.twitter.com)) sortzaileek argi ikusi zuten hori duela zortzi hilabete eskas. Mikroblog sistema bat sortu zuten eta erabiltzaileei *what are you doing?* –zertan ari zara?– galderari erantzuteko aukera eman. Asmakizuna denen ahotan dabil orain.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Ines Urrutia

**TAMAINA** izango da arrakastaren gakoa. Gehienez 140 karaktereko mezuak idatzi daitezke Twitterreko mikroblogetan, SMS batean sartzen den testua alegia. Horrek blog bat sortu eta “elikatzea” lan handiegia dela uste dutenei aukera eman die sarean beren txokoa sortzeko. Gainera erabiltzaileek ez dute gai zehaztetan adituak izan beharrik; nahikoa dute momentu bakoitzean zertan ari diren kontatzearekin.

Baina ez nahastu, Twitter blog txikiak sortzeko ataria baino gehiago ere bada eta. Mikrobloga sortuta beste twitterzaleekin elkar eragiteko aukera ugari eskaintzen zaizkio erabiltzaileari: web bidez laguneren zerrenda bat osatu eta haiek zertan ari diren jakiteko aukera ematen du, besteak beste. Norberak Twitterren mezu bat idazten duen bakoitzean, bere laguneri ailegatuko zaie eta lagunek idazten dutenean guk jasoko dugu.

Gainera, bat-bateko mezularitza programekin eta telefono mugikorrekin batera erabil

daiteke. Beraz, ez da beharrezkoa ordenagailuaren pantaila aurrean egotea lagunak momentuoro zertan dabilzan jakiteko.

## Berria eta arrakastatsua

Asmakizun gaztea da Twitter. Duela zortzi hilabete, jarri zen abian. Aurtengo martxorako lortutako erabiltzaile kopurua eta oihartzuna dela-eta, Texasen (AEB) banatzen diren South by South West saria irabazi zuten sortzaileek blog kategorian.

Ez zuten horrelako arrakastarik espero hain tarte laburrean. Evan Williams proiektuaren bultzatzaileetako bat izan zen eta sariaketaren aurretik eskaintako elkarrizketa batean aitortu zuenez, Twitter ez zegoen milaka jarraitzaileentzat diseinatua, talde txikiak harremanetan jartzeko baizik. “Hamarnaka mila erabiltzaile ditugu oraindik [aurtengo martxoan] baina eragin handiko jendea da eta kopurua azkar ari da hazten”.

# Twitter

## Esperimentatzen

“Twitter zail samarra da ulertzeko. Jendeak begiratu eta ‘zer arraio da hau?’ galdetzen du” azaldu zuen Williamsek. Sentsazio horixe izan zuen Gorka Julio andoaindarrak (Gipuzkoa) ere mikrobloga probatu zuen lehendabiziko aldian. “Ez nion erabilpen argirik ikusten”.

Asmakizunari arazo eta gabezia batzuk ikusi zizkion Juliok eta horiek konpontzen hasi zen nanoformatoak erabiliz. Horiei esker mezu laburretako informazioa sailkatu daiteke. Hitzaldi edo bilera bat denbora errealean Twitterren bidez jarraitzeko aukera eskaintzen da adibidez, baita edukiak hizkuntzaren arabera sailkatu, erabiltzaileek beren kokalekuak zehaztu edo mezuen edukia baloratu ahal izatea ere.

## Informazioa eta komunitatea

Edozein aurrerapen teknologikorekin bezala, ematen zaion erabileraren arabera izango da Twitterri atera ahal zaion probetxua. Askok lan ordutan lagunekin hitz egiteko erabiltzen dute, txat baten antzera. Twittervision guneari esker (<http://twittervision.com>) denbora errealean jakin dezakegu mundu osoko erabiltzaileek zer esateko erabiltzen dituzten beren mezu laburrak. Atari horretan erakusten den munduko mapan Fusedreality izeneko erabiltzailearen esana agertu da: eguraldi txarraz kexu da Eskoziatik; TomVS izeneko ere kexatzen ari da, baina lan pila duelako. Horrelakoak ikusita, hedabide askotan denbora galtzea iritzi diote asmakizun berriari.

Badira bestelako erabilerak ordea. Informazio iturri aberatsa izan daiteke Twitter. Euskarazko zabaldu.com guneak adibidez, albiste berri bat ematen duen bakoitzean titularrak eta lotura eskaintzen dizkie Twitter bidez jaso nahi dutenei. Antzera egiten dute Ingalaterrako *BBC News* atariak eta *The New York Times* egunkariak ere.

## 2.0tik harago

Internet zaleak web 2.0 kontzeptuaz aspertzaren hasiak zirenean etorri da Twitter,

## Politikariak arrastoa galdu gabe

AEBetako politikariak aspaldi jabetu ziren Internetek botoemaile gazteengan duen eraginaz. Horregatik ahalegin berezia egiten ari dira azken aldian “merkatu” hori nola edo hala eurenganatzeko. Azken saiakeren artean titular gehienetan atera dena John Edwards senataria izan da. Teknofilo fama lortzen ari da 2008ko hauteskundeetan alderdi demokrataren hautagaia izan daitekeena: Second Life-en bere kanpaina bultzatzeko bulegoa ireki zuenean kolpea jo zuen eta Twitterrekin ere ez du pausoa galdu. [www.twitter.com/johnedwards](http://www.twitter.com/johnedwards) helbidean bere eguneroko jardueraren berri ematen du, hautagai politikoen bizitza zein aspergarria izan daitekeen ikusteko baliagarria dena, dudarik gabe.

Dena dela, Edwardsi kompetentzia etxe barruan atera zaio. Barack Obama, bere alderdian presidente izateko beste hautagaia ere fin ari baita Twitterren. [www.twitter.com/barackobama](http://www.twitter.com/barackobama) helbidera sartzea besterik ez dago: 1.304 jarraitzaile ditu.

momentu onenean alegia. David de Ugarte bezalako adituek web 2.1 etiketa ipini diote dagoeneko asmakizunari, berorri esker sareak 0.1-eko jauzitxoak egin duela adieraziz.

Dena dela, oraindik ez dago argi benetako oinarri sendoak dituen komunikazio tresnaren aurrean gauden edo aldi bateko moda besterik ez den. Argi dagoen gauza bakarra erabiltzaile kopuruaren orain arteko hazkunde ikaragarria da. Eta arrakastaren arrastoa, antzeko aplikazioak sortzen joan direla, Dodgeball ([www.dodgeball.com](http://www.dodgeball.com)) eta Jaiku ([www.jaiku.com](http://www.jaiku.com)) adibidez.

Gehiegi puztu den puxika ote? Interneteko iraultza berria akaso? Teknofiloen azken gutizia? Twitterrekin ezin da jakin. Anbiguetatea izenetik datorkio: *twitter* hitzak txioka aritzea esan nahi du; *twit* izenak berriz “inozo” adierazten du. Txorien kantu alaia edo memelokeria galanta izan liteke beraz. Goizegi da agian bietako zeren aurrean gauden argitzeko. ■

Oraindik ez dago  
oso argi Twitter  
aldi bateko moda  
den edo  
Interneteko  
iraultza txikia.  
Erabiltzaile  
kopurua geroz  
eta handiago  
da hala ere



# BASAURI

Maiatzaren 17tik 20ra arte, Solabarrian

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

*Bizi irakurriz!*